

ERABAKIA; horren bidez, onesten dira "BI-637 errepidean Avanzadako tunela egokitzeko azpiegitura eta gainegiturako eraikuntza-proiektuak".

ACUERDO por el que se aprueban los proyectos constructivos de "Adecuación del Túnel de la Avanzada en la BI-637. Infraestructura y Superestructura".

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Bizkaiko Foru Aldundiak 2021eko azaroaren 9ean (gai zerrendako 12. Gaia) behin-behinean onesten du "BI-637 errepidean Avanzadan tunela egokitzeko" oinarritzko proiektua, bai eta jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapidea, errepideen arloko arautegiaren ondorioetarako.

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de 9 de noviembre de 2021 (asunto 12 del orden del día), se procedió a la aprobación provisional del proyecto básico de "Adecuación del Túnel de la Avanzada en la BI-637" y su sometimiento al trámite de información pública y audiencia a los efectos de la normativa sectorial de carreteras.

Bigarrena.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko maiatzaren 24ko Erabakiaren bidez (gai zerrendako 27. gaia), jendaurrean jartzeko eta entzuteko izapideak ebatzi ziren, bai eta "BI-637 errepidean Avanzadako tunela egokitzeko" oinarritzko proiektua behin betiko onartu ere.

Segundo.- Mediante Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de 24 de mayo de 2022 (asunto 27 del orden del día), se procedió resolver los tramites de información pública y audiencia, así como aprobar definitivamente el proyecto básico de "Adecuación del Túnel de la Avanzada en la BI-637".

Hirugarrena.- Lurralde Garapenerako Zuzendaritzaren Azpiegiturak Garatzeko Zuzendariordetza Nagusiak sail honetako Zerbitzu Orokorren Zerbitzuaren Atal Administratibo Juridikoari bidali dio aipatutako proiektuari buruzko txostena; proiektua zuzenki onesteko. Era berean, jendaurreko erakustaldi eta entzunaldi irekien izapideak amaitu ostean aurkezturiko alegazioei erantzuteko proposamen-txostena igorri da eranskin bezala.

Tercero.- Por la Subdirección de Desarrollo de Infraestructuras de la Dirección General Desarrollo Territorial ha sido remitido a la Sección Jurídico Administrativa del Servicio de Servicios Generales de este Departamento los informes relativos a los proyectos de referencia solicitando su aprobación directa, que se dividen en los proyectos constructivos relativos a Infraestructuras y a Superestructura.

Bidalitako txostenetan adierazten denez,

En los informes remitidos, se indica que los



azpiegiturei eta gainegiturari buruzko eraikuntza-proiektuak "bat datoz oinarrizko egokitzapen-proiektuan aurreikusitako jarduketaren trazadurarekin eta kontzepzioarekin berarekin. Eraikuntza-dokumentu bat lortzeko beharrezkoak diren dokumentazioa eta gauzatze-xehetasunak baino ez dira erantsi, eta horiek ez dira bidezkoak Oinarrizko Proiektuan. Beraz, jendaurreko informazioko eta entzunaldiko izapideak ebatzi direnez eta Oinarrizko Proiektua behin betiko onartu denez, bukatutzat jo daiteke eraikuntza-proiektua jendaurrean jartzeko izapidea ere, hau da, Bizkaiko errepideei buruzko urriaren 20ko 5/2021 Foru Arauaren 19. artikuluan, Obra-multzoa, eta 20. artikuluan, Plangintzako eta proiektuetako tresnak izapidetzea eta onartzea, xedatutakoa aplikatuz."

Hirugarrena.- Bidalitako proiektuek hau azaltzen dute:

HELBURUA

Proiektu honen helburua Leioako (Bizkaia) Avanzadako tunela handitzeko beharrezkoak diren jarduketak zehaztea da, 310 m-ko luzera duen egungo konfiguraziotik etorkizuneko konponbidera arte, hau da, 860 m-ko luzera izango duena guztira, eta konfigurazio hori tuneletako segurtasun-araudira egokitzeko.

Azpiegiturei dagokienez, horretarako gaur egun estalita dagoen eremuaren eta Dendiarena eta Txabi eta Joseba Etxebarrieta kaleetako biribilguneen arteko estaldura handituko da, eta ahoak zabalduko dira, ez ibiltzeko estalki arin baten bidez (100 metro ingurukoa Getxoko ahoan eta 141 metro ingurukoa Bilbokoan). Estalitako eremuak 860 metroko luzera izango du guztira. Gainera, pantaila akustikoak jarriko dira errepidearen bi

Proyectos de construcción relativos a Infraestructuras y Superestructura "se ajustan al trazado y a la propia concepción de la actuación prevista en el proyecto básico de adecuación. Únicamente se incorpora la documentación y los detalles de ejecución necesarios para obtener un documento constructivo, que no son procedentes en el Proyecto Básico. Por tanto puesto que se han resuelto los trámites de información pública y audiencia y se ha aprobado definitivamente el Proyecto básico se pueden dar por completado también el trámite de información pública para el Proyecto Constructivo en aplicación de lo recogido en los Artículos 19.- Grupo de obras y 20.- Tramitación y aprobación de los Instrumentos de Planeamiento y Proyectos, de la Norma Foral 5/2021, de 20 de octubre, de carreteras de Bizkaia."

Tercero.- De los proyectos remitidos se destaca lo siguiente:

OBJETO

El objeto del presente proyecto es definir las actuaciones necesarias para la ampliación del Túnel de La Avanzada en Leioa (Bizkaia) desde su configuración actual, con una longitud de 310 m, hasta la solución futura que resulta una longitud total de 860 m, y para la adecuación del mismo, a la normativa de seguridad en túneles.

Desde el punto de vista de las Infraestructuras, para ello, se ampliará el cubrimiento entre la zona actualmente cubierta y las rotondas de las calles Dendiarena y Txabi eta Joseba Etxebarrieta, así como se ampliarán las bocas mediante una cubierta ligera no transitable de unos 100 m en la boca Getxo y unos 141 metros en la Boca Bilbao, alcanzando la zona cubierta una longitud total de 860 m. Además, se instalarán



aldeetan; hala, Getxoko aldeko irteera-ahotik aurrera, 276 metroko pantaila jarriko da Getxoranzko aldean, eta Bilboko aldeko irteera-ahotik aurrera, pantailak jarriko dira errepidearen alde bakoitzean (416 metrokoa Getxoranzko noranzkoan eta 160 metrokoa Bilborako noranzkoan).

Jarduketa horri esker, Leioako udalerraren bi eremuetako bi aldean arteko lotura hobetu ahal izango da, Avanzadako trafikodentsitate handiaren ondorioz Leioako bizilagunek jasaten duten kutsadura akustikoa minimizatuko da eta garapen jasagarriaren helburuak beteko dira.

Eta gainegituraren ikuspegitik, 860 metroko tunel berria tunelen segurtasunari buruzko araudian eskatutako baldintzetara egokitzeko, segurtasun-azpiegitura definitzen da (argiak, aireztapena, suteen aurkako babesa, trafikoaren kudeaketa, telebista-zirkuitu itxiak, komunikazioak, etab.), neurri handi batean segurtasungabeziako egoerak konponduz eta instalazioak indarreko araudira egokituz.

Beste alde batetik, proiektu honek azpiegitura-lan batzuk aurreikusten ditu, hala nola portikoak eta banderolak egitea, zuntz optikozko kanalizazio guztiak egitea, tunelaren barrualdea eraistea, tuneleko estalki ez-zirkulagarriak kanpoaldetik estaltzea eta tunelaren barrualdea estetikari dagokionez estaltzea.

AURREKONTUA ETA EGITEKO EPEA

Bi proiektuen Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, BEZik gabe, BERROGEITA HAMAHIRU MILIOI ZAZPIEHUN ETA

pantallas acústicas a los lados de la carretera, de manera que a partir de la boca de salida en el lado Getxo se colocarán 276 m de pantalla en el lateral sentido Getxo y a partir de la boca de salida lado Bilbao se dispondrán pantallas a cada lado de la carretera, 416 m en sentido Getxo y 160 m en sentido Bilbao.

Esta actuación permitirá mejorar la conexión entre las dos zonas a ambos lados del municipio de Leioa, minimizar la contaminación acústica que sufren los vecinos de Leioa derivada por la alta densidad de tráfico en La Avanzada y cumplir con los objetivos de desarrollo sostenible.

Y desde el punto de vista de la Superestructura, para adecuar el nuevo túnel de 860 metros a los requisitos exigidos en la normativa de seguridad de túneles, se define la infraestructura de seguridad (alumbrado, ventilación, protección contra incendios, gestión del tráfico, CCTV, comunicaciones, etc.) resolviendo en buena medida las situaciones de inseguridad que se podrían llegar a plantear y adecua las instalaciones a la normativa vigente.

Por otro lado, este proyecto contempla la ejecución de distintos trabajos de infraestructura tales como, la ejecución de pórticos y banderolas, así como todas las canalizaciones de fibra óptica, la demolición en el interior del túnel, el revestimiento exterior de las cubiertas no transitables del túnel y el revestimiento estético del interior del túnel.

PRESUPUESTO Y PLAZO DE EJECUCION

El Presupuesto Base Total de Licitación sin IVA de los dos proyectos, asciende a la cantidad de CINCUENTA Y TRES



HAMAZAZPI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA HAMALAU ZENTIMO (53.717.549,54 €) da, eta, %21EKO BEZ barne, HIRUROGEITA LAU MILIOI BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZORTZI MILA BERREHUN HOGEITA HAMALAU EURO ETA LAUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (64.998.234,95 €) da.

MILLONES SETECIENTOS DIECISIETE MIL QUINIENTOS CUARENTA Y NUEVE EUROS CON CINCUENTA Y CUATRO CÉNTIMOS (53.717.549,54 €) y con IVA (21%) asciende a la cantidad de SESENTA Y CUATRO MILLONES NOVECIENTOS NOVENTA Y OCHO MIL DOSCIENTOS TREINTA Y CUATRO EUROS CON NOVENTA Y CINCO CÉNTIMOS (64.998.234,95 €)

Azpiegituraren zatirako, obren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZik gabe) HOGEITA HAMAZAZPI MILIOI SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU MILA LAUREHUN ETA HOGEI EURO ETA HAMAZAZPI ZENTIMO (37.694.420,17 €), eta BEZa (% 21) BERROGEITA BOST MILIOI SEIEHUN ETA HAMAR MILA BERREHUN ETA BERROGEITA ZORTZI EURO ETA BERROGEITA BAT ZENTIMO (45.610.248,41 €).

Para la parte de Infraestructura el presupuesto base de licitación (sin IVA) de las obras asciende a la cantidad de TREINTA Y SIETE MILLONES SEISCIENTOS NOVENTA Y CUATRO MIL CUATROCIENTOS VEINTE EUROS CON DIECISIETE CÉNTIMOS (37.694.420,17 €) y con IVA (21%) CUARENTA Y CINCO MILLONES SEISCIENTOS DIEZ MIL DOSCIENTOS CUARENTA Y OCHO EUROS CON CUARENTA Y UN CÉNTIMOS (45.610.248,41 €).

Obrak egiteko aurreikusitako epea BERROGEITA BAT (41) hilabetekoa da.

El plazo estimado para la ejecución de las obras es de CUARENTA Y UN (41) meses.

Gainegituraren zatirako, obren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZik gabe) GUZTIRA HAMASEI MILIOI ETA HOGEITA HIRU MILA EHUN ETA HOGEITA BEDERATZI EURO ETA HOGEITA HAMAZAZPI ZENTIMOKOA (16.023.129,37 €) da, eta BEZarekin (% 21) HEMERETZI MILIOI HIRUREHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA SEI EURO ETA BERROGEITA HAMALAU ZENTIMO (19.387.986,54 €).

Para la parte de Superestructura el presupuesto base de licitación (sin IVA) de las obras asciende a la cantidad de DIECISEIS MILLONES VEINTITRES MIL CIENTO VEINTINUEVE EUROS CON TREINTA Y SIETE CÉNTIMOS (16.023.129,37 €) y con IVA (21%) DIECINUEVE MILLONES TRESCIENTO OCHENTA Y SIETE MIL NOVECIENTOS OCHENTA Y SEIS EUROS CON CINCUENTA Y CUATRO CÉNTIMOS (19.387.986,54 €).

Obrak egiteko HOGEITA HAMASEI (36) hilabeteko epea aurreikusten da.

El plazo estimado para la ejecución de las obras es de TREINTA Y SEIS (36) meses.

Oinarritzko proiektuan onartzean adierazitako Lizitazioaren Oinarritzko Aurrekontua gutxitu egin da erainkuntza-

El Presupuesto total Base de Licitación indicado en el proyecto básico se ha modificado ligeramente a la baja para la



proiektua onarpenerako.

aprobación del proyecto de construcción.

PROIEKTUA GAINBEGIRATZEA

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Plangintza Zerbitzuko buruaren 2022ko urriaren 17ko aldeko txostenak daude.

SUPERVISIÓN DEL PROYECTO

Informados favorablemente el 17 de octubre de 2022 por el Jefe del Servicio de Planificación del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.

TUNELEN SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko urriaren 11ko Erabakiaren bidez (gai zerrendako 15. gaia), Gobernu Kontseiluak eraikuntza-proiektuak onartu zituen, Segurtasunari buruzko araudiaren arabera, administrazio-agintaritza gisa, Bizkaiko Lurralde Historikoko tunelen segurtasunari buruzko abuztuaren 23ko 135/2006 Foru Dekretuan araututa,

NORMATIVA DE SEGURIDAD DE TÚNELES

Mediante Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de 11 de octubre de 2022 (asunto 15 del orden del día), se aprobaron los indicados proyectos constructivos a efectos de la normativa de seguridad de túneles por Consejo de Gobierno en su condición de Autoridad Administrativa regulada en el Decreto Foral 135/2006, de 23 de agosto, de Seguridad en Túneles del Territorio Histórico de Bizkaia.

DESJABETZAK, ZUINKETA ETA AZTERLAN GEOLOGIKOA

Azpiegiturearen proiektuan 3. eranskinean (Geologia eta Geoteknia), BI-637 errepidearen (La Avanzada) estalkia errepide hori Leioatik igarotzen den tartean handitzeko irtenbideak garatzeko baldintza geologiko eta geoteknikoak zehazteko lanak sartzen dira.

EXPROPIACIONES, REPLANTEO Y ESTUDIO GEOTÉCNICO

En el proyecto de Infraestructura, en el Anejo nº3 de Geología y Geotecnia se incluye los trabajos necesarios para definir las condiciones geológico-geotécnicas para el desarrollo de las soluciones de ampliación de la cubierta de la carretera BI-637 (La Avanzada) a su paso por el término municipal de Leioa.

Gainegituren proiektuan ez da beharrezkoa estudio geoteknikoa.

En el proyecto de Superestructura no se considera necesaria su redacción

Lanak egiteko behar diren lursailak titulartasun publikokoak dira, eta, horrenbestez, ez da desjabetzerik egin behar.

Los terrenos necesarios para la ejecución de los trabajos son de titularidad pública, por lo que no resulta necesario realizar expropiación alguna.

SAILKAPENA ETA PREZIOEN BERRIKUSPENA

Proiektuetan zehaztu dira obren kontratistek zein talde eta azpitaldetan

CLASIFICACION Y REVISION DE PRECIOS

Se establecen en los proyectos los grupos y subgrupos en que deben estar clasificados



sailkatuta egon behar duten obren adjudikazioa jaso ahal izateko.

los contratistas de obras para que puedan ser adjudicatarios de las obras.

Prezioak berrikusteari dagokionez, proiektuek, Prezioak berrikusteko formula, adierazten dutenez, obra-kontratueta prezioen berrikuspena aplikatzeari buruzko "Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Estatu Idazkaritzaren 2021eko abenduaren 17ko Ebazpenean" ezarritakoaren arabera, prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikusteko eskubidea aitortzen zaio kontratistari, prezioak berrikusteko dagokion formula aplikatuz.

En lo tocante a Revisión de precios, los proyectos indican.- Formula de revisión de precios que según lo establecido en la "Resolución de la secretaria de estado de transportes, movilidad y agenda urbana" de 17 de diciembre de 2021, sobre aplicación de la revisión de precios en los contratos de obra, se reconoce al contratista el derecho a la revisión periódica y predeterminada de precios aplicando la fórmula de revisión de precios que corresponda.

Ebazpen honek Sektore Publikoko Kontratuari buruzko irailaren 8ko 9/2017 Legearen 103.2 artikuluan ezarritako justifikazio-salbuespena betetzeko balio du; lege horren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Esta resolución sirve para cumplir con la exigencia de justificación establecida en el artículo 103.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZKO AZTERKETA

Proiektu hauetan 15. eta 30. eranskin gisa, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko azterlan bat sartu da. Hala, bada, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen 105/2008 Errege Dekretua betetzen da. Aipaturiko azterlan hori, halaber, EAEko eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera egin da.

ESTUDIO DE GESTIÓN DE RESIDUOS

Se incluye en los proyectos, como Anejos nº 15 y 30, un estudio de Gestión de residuos de construcción y demolición. Se cumple así el RD 105/2008 por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición. Este estudio se ha realizado, asimismo, según lo previsto en el Decreto 112/2012 por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición de la CAPV.

SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO AZTERLANA.

Eraikuntza-proiektuetan jasotako segurtasun- eta osasun-azterlanaren xedea da eraikuntzako obretako gutxieneko

ESTUDIO DE SEGURIDAD Y SALUD.

El objeto del Estudio de Seguridad y Salud incluido en los Proyectos Constructivos es la redacción de los documentos necesarios



segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1.627/1997 Errege Dekretuaren esparruan beharrezkoak diren dokumentuak idaztea, obra gauzatzeko arazoetarako eta laneko istripuen, lanbide-gaixotasunen eta hirugarrenei eragindako kalteen prebentziorako beharrezko konponbideak aurreikusi eta garatzeko.

Era berean, jarduerak irauten duen bitartean, langileen osasun, higiene eta ongizate instalazioak ezartzen ditu.

BIDE-SEGURTASUNAREN AUDITORIA

Proiektu hauetan, bide-segurtasunaren auditoria egin da eraikuntza-proiektuaren fasean, kontuan hartuta zer ezartzen den Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide sareko bide azpiegituren segurtasuna kudeatzeari buruzko ekainaren 24ko 80/2014 Foru Dekretuan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko errepideen foru-sareko bide-segurtasuneko prozedurei buruzko eskuliburu teknikoetan (Herri Lan eta Garraioen foru diputatuaren martxoaren 11ko 1184/2015 Foru Aginduaren bidez onartutakoetan).

Bide-segurtasunaren auditoria-txostena eta erantzun-txostena egin ondoren, Bideen Segurtasunerako, Hobekuntzarako eta Modernizaziorako Zerbitzura bidali ziren biak 2022ko irailaren 28an, arlo honetan indarrean dagoen legeria betetzeko.

INGURUMENEN ERAGINAREN EBALUAZIOA

Zerbitzu sustatzailearen txostenetan adierazten da proiektu honetan jasotako jarduketak ez daudela jasota Ingurumen-

que definan, en el marco del Real Decreto 1.627/1.997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción, las previsiones y desarrollo de las soluciones necesarias para los problemas de ejecución de la obra, y la prevención de riesgos de accidentes laborales, enfermedades profesionales y daños a terceros.

Asimismo, contempla las instalaciones preceptivas de sanidad, higiene y bienestar de los trabajadores durante el desarrollo de la misma.

AUDITORÍA DE SEGURIDAD VIARIA

Los proyectos han sido sometido al procedimiento de Auditoría de Seguridad Viaria, en la fase de proyecto de construcción, conforme a lo establecido en el Decreto Foral 80/2014, de 24 de junio, sobre gestión de la seguridad de las infraestructuras viarias en la red de carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia y en los Manuales Técnicos sobre procedimientos de Seguridad Viaria en la Red Foral de Carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobados mediante Orden Foral 1184/2015, de 11 de marzo de la diputada de Obras Públicas y Transportes.

Una vez elaborado el Informe de Auditoría de Seguridad Viaria, así como el Informe Respuesta, ambos han sido remitidos al Servicio de Seguridad Vial, Mejora y Modernización, el 28 de septiembre de 2022, dando así cumplimiento a la legislación vigente en la materia.

EVALUACION DE IMPACTO AMBIENTAL

En los informes del servicio promotor se indica que las actuaciones contempladas en el presente proyecto no se encuentran



ebaluzioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean jasotako ingurumen-ebaluzioiko kasu bakar batean ere, ezta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean jasotakoetan ere, eta, beraz, ez da beharrezkoa jarduketa horien ingurumen-izapideak egitea.

INFORMAZIO PUBLIKOAREN IZAPIDEA ETA UKITUTAKO TOKI-KORPORAZIOEI ETA ERAKUNDEEI ENTZUNALDIA EMATEKOA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 9an hartutako erabakiaren babesean, behin-behinean onetsi zen BI-637 errepidean Avanzadako tunela egokitzeko proiektua, eta informazio publikoaren izapidea eta ukitutako toki-korporazioei eta erakundeei entzunaldia ematekoa ireki ziren, haiek adostasun- edo desadostasun-txostena egin zezaten eta egokitzat jotzen zituzten alegazioak egin zitzaten proiektua interes orokorrekotzat jotzea justifikatzeko inguruabarrei zegokienez eta trazatuaren planteamendu orokorrari zegokienez.

Informazio publikoaren izapidea 2021eko abenduaren 30ean amaitu zen. Leioako Udalari entzuteko izapidea 2022ko urtarrilaren 18an amaitu zen.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko maiatzaren 24ko Erabakiaren bidez, jendaurrean jartzeko eta entzuteko izapideak ebatzi ziren, eta “BI-637 errepidean Avanzada tunela egokitzeko” oinarritzko proiektua behin betiko onartu zen, jasotako alegazioei erantzunez.

ONDORIOA

Zerbitzu sustatzailearen txostenak adierazten duenez, «eraikuntza-proiektu

recogidas en ninguno de los supuestos de evaluación ambiental recogidos en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental ni en los recogidos en la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, por lo que no es necesaria su tramitación ambiental.

TRAMITE DE INFORMACION PUBLICA Y AUDIENCIA A LAS CORPORACIONES LOCALES Y ORGANISMOS AFECTADOS

En virtud de Acuerdo Foral de fecha 9 de noviembre de 2021, el Consejo de Gobierno de la DFB aprobó provisionalmente el proyecto de Adecuación del Túnel de la Avanzada en la BI-637, abriendo los trámites de información pública y audiencia a las corporaciones locales y organismos públicos afectados para emitir su informe de conformidad o disconformidad y formular las alegaciones que estimen oportunas en relación a las circunstancias que justifiquen su declaración de interés general y la concepción global de su trazado.

El trámite de información pública abierto finalizó el 30 de diciembre de 2021. El trámite de audiencia al Ayuntamiento de Leioa finalizó el 18 de enero de 2022.

Mediante Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de 24 de mayo de 2022, se procedió resolver los tramites de información pública y audiencia, así como aprobar definitivamente el proyecto básico de “Adecuación del Túnel de la Avanzada en la BI-637”, dando respuesta a las alegaciones recibidas.

CONCLUSION

El informe del servicio promotor indica que los proyectos de construcción, contienen



honek honako hauek biltzen ditu: Avanzada estaltzeko behar diren alderdi geometrikoak, azpiegitura horrek ukitutako ondasun, eskubide eta zerbitzuen definizio zehatza eta jarduketaren kostua zehazteko beharrezkoak diren definizioak».

Halaber, informazio publikoaren izapidea egin da, baita toki-korporazioari entzualdia ematekoa ere, hark egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan proiektua interes orokorrekotzat jotzea justifikatzeko inguruabarrei dagokienez eta trazatuaren planteamendu orokorrari dagokienez.

Azaldutako guztiagatik, BI-637 errepidean Avanzadako tunela egokitzeko proiektuak, azpiegitura eta gainegitura, bidaltzen dira, Eraikuntza-Proiektuak onesteko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Izapidetzea. Eraikuntza-proiektua zuzenki onespina.- Erabaki honetan aurreikusi den izapidetzea Bizkaiko Errepideen martxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauaren arabera xedatuko da.

Bizkaiko Errepideei buruzko urriaren 20ko 5/2021 Foru Arauak Lehen Xedapen Iragankorrean adierazten duenez, 19. artikuluan definitutako obra-proiektuak, Foru Arau hau indarrean sartu aurretik izapidetzen hasitakoak, izapidetzen jarraituko dira, eta hasten diren unean aplikatzekoa den araudiaren arabera ikasiko dira.

Zerbitzu sustatzailearen txostenean adierazten denez eraikuntza-proiektuek eskatutako eskakizunak betetzen dituztela

los aspectos geométricos necesarios para la cubrición de La Avanzada, la definición concreta de los bienes, derechos y servicios afectados por esta infraestructura, así como las definiciones suficientes para determinar el coste de la actuación.

Asimismo, ha sido sometido al trámite de información pública y audiencia a la Corporación Local a los efectos de que se puedan realizar las observaciones oportunas sobre las circunstancias que justifiquen su declaración de interés general y la concepción global de su trazado.

Por todo lo anteriormente expuesto, se remite los Proyectos de adecuación del Túnel de La Avanzada en la BI-637, Infraestructura y Superestructura, para que se proceda a la aprobación de dichos proyectos de construcción.

FUNDAMENTOS JURIDICOS

Primero.- Tramitación. Aprobación directa del proyecto de construcción.- El trámite previsto en el presente acuerdo se efectúa de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 2/2011, de 24 de marzo, de Carreteras de Bizkaia.

La Norma Foral 5/2021, de 20 de octubre, de Carreteras de Bizkaia, en su Disposición Transitoria Primera indica que los proyectos de obras definidas en el artículo 19 cuya tramitación se hubiera iniciado con anterioridad a la fecha de entrada en vigor de la presente Norma Foral continuarán su tramitación y serán aprobados conforme a la normativa aplicable en el momento de su iniciación.

En el informe del servicio promotor se indica que se considera que los Proyectos de Construcción cumplen los



uste da, lortu nahi den helbururako balio dutela eta behar bezala idatzita daudela. Era berean, eraikuntza-proiektuek Avanzada estaltzeko behar diren alderdi geometrikoak jasotzen dituzte, baita azpiegitura horrek ukitutako ondasun, eskubide eta zerbitzuen definizio zehatza egiten dute eta, halaber, jarduketaren kostua zehazteko behar diren definizioak dituzte.

Era berean, Zerbitzu sustatzailearen txostenean adierazten denez, zehaztutako jarduketak ez daude jasota 2/2011 Foru Arauaren 14. artikuluan jasotako kasu bakar batean ere eta ez dute funtsezko aldaketarik eragiten errepidearen funtzionaltasunean.

Gardentasun helburuetarako zerbitzu sustatzaileak jendaurreko informazioaren eta ukituak izan diren erakundeei, beste hainbat erakunde publiko eta sailei egingo zaien entzunaldiaren izapideak egitea bidezkoa estimatzen du, Bizkaiko errepideei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauaren 14. eta 15. artikuluetan eta aplikatzen den gainerako araudian ezarrita dagoenarekin bat etorritz.

Aipaturiko izapideak bete ostean, jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapideak eta oinarrizko proiektua behin betiko onartu zen.

Beraz, une honetan, eraikuntza-proiektuak zuzenki onartu behar dira. Bidalitako txostenean adierazten denez azpiegiturari eta gainegiturari buruzko eraikuntza-proiektuak bat datoz oinarrizko egokitzapen-proiektuan aurreikusitako jarduketaren trazadurarekin eta kontzepzioarekin berarekin. Eraikuntza-dokumentu bat lortzeko beharrezkoak diren dokumentazioa eta gauzatze-

requerimientos exigidos, sirviendo para el fin que se pretende y que están correctamente redactados. Asimismo que los Proyectos de Construcción contienen los aspectos geométricos necesarios para la cubrición de La Avanzada, la definición concreta de los bienes, derechos y servicios afectados por esta infraestructura, así como las definiciones suficientes para determinar el coste de la actuación.

Igualmente, en el informe del servicio promotor se indica que las actuaciones definidas no están tipificadas en ninguno de los supuestos recogidos en el artículo 14 de la Norma Foral 2/2011 y no suponen una modificación sustancial de la funcionalidad de la carretera.

A efectos de transparencia se consideró conveniente por el servicio promotor someter el proyecto a los tramites de información pública y audiencia a las corporaciones afectadas, otros organismos públicos y departamentos, según lo dispuesto en el artículo 14 y 15 de la Norma Foral 2/2011, de 24 de marzo, de Carreteras de Bizkaia y demás normativa de aplicación.

Una vez cumplimentados los trámites mencionados se procedió a resolver los trámites de información pública y audiencia y aprobar definitivamente el proyecto básico.

Por lo tanto, en este momento procede la aprobación directa de los proyectos constructivos. Según se indica en el informe remitido, los Proyectos de construcción relativos a Infraestructura y Superestructura se ajustan al trazado y a la propia concepción de la actuación prevista en el proyecto básico de adecuación. Únicamente se incorpora la documentación y los detalles de ejecución necesarios para



xehetasunak baino ez dira erantsi, eta horiek ez datoz bat Oinarrizko Proiektuan. Eta oinarrizko proiektu hori aldeaz aurretik jendaurrean jarri gardentasun helburuetarako eta behin betiko onartu denez, aplikatu beharreko araudiaren arabera ez da berriro jendaurrean jarri behar.

Bigarrena.- Organo eskuduna.- Bizkaiko Foru Aldundiak eskumena dauka Bizkaiko errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki, artatu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatzeko, Gernikako Autonomia Estatutuaren 10.34. artikuluan aitortzen denaren arabera eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8. artikulua eta Bizkaiko Errepideen martxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauaren 1. artikulua eta horrekin bat datozenek xedatu bezala.

Ebazteko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak du, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arautzaileak onetsi zuen Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategineko laugarren xedapen gehigarrian, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 1eko 14/2022 Foru Dekretua (haren bidez, abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuak onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra aldatzen da, Aurrekontuei buruzko Foru Araua garatzen duena). Hala, eskumenduna da eraikuntza-proiektuak onesteko.

obtener un documento constructivo, que no son procedentes en el Proyecto Básico. Y dado que este proyecto básico con carácter previo ha sido sometido a información pública a efectos de transparencia y aprobado definitivamente, según la normativa de aplicación no se requiere realizar de nuevo el trámite de información pública.

Segundo.- Órgano competente.- La Diputación Foral de Bizkaia es competente para la planificación, proyección, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de las carreteras de Bizkaia según se reconoce en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía de Gernika y dispone el art. 7.a.8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, así como el artículo 1 y concordantes de la Norma Foral 2/2011, de 24 de marzo, de Carreteras de Bizkaia.

La competencia para resolver corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, a tenor de lo dispuesto en la Disposición Adicional Cuarta del Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 14/2022, de 1 de marzo, por el que se modifica el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia (Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre), que desarrolla la citada Norma Foral, por lo que se considera el competente para aprobar los proyectos de construcción.



Horregatik guztiagatik, azpian sinatzen duenak erabaki proposamen hau zuri aurkezteko ohorea du, ondoren Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseilura bidali dadin

Por todo ello, el que abajo suscribe tiene el honor de someter a V.I., para su posterior elevación al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, la siguiente propuesta de:

FORU ERABAKIA

ACUERDO FORAL

Lehenengoa.- “BI-637 errepidean Avanzadan tunela egokitzea; azpiegitura eta gainegitura” eraikuntza-proiektuak onestea. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua, BEZ gabe, BERROGEITA HAMAHIRU MILIOI ZAZPIEHUN ETA HAMAZAZPI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA HAMALAU ZENTIMO (53.717.549,54 €) da, eta, %21EKO BEZ barne, HIRUROGEITA LAU MILIOI BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZORTZI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMALAU EURO ETA LAUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (64.998.234,95 €) da. Obrak egikaritzeko zenbatetsi den epea BERROGEITA BAT (41) hilabetekoa da Azpiegituren proiektuaren kasuan eta HOGEITA HAMASEI (36) hilabetekoa da Gainegituraren proiektuaren kasuan. Honen oinarriak dira espedientean dauden proiektuak eta bidalitako onespentostenak.

Bigarrena.- Foru erabaki hau ondoko hauei jakinaraziko zaie: Azpiegiturak Garatzeko Zuzendariordetzari, Ustiapen Zerbitzuari, Desjabetzeen Zerbitzuari eta ukitutako zerbitzuei; bai eta Bideen Segurtasunerako, Hobekuntzarako eta Modernizaziorako Zerbitzuari foru sail honetako administrazio-unitateei ere.

Hirugarrena.- Foru erabaki hau eta bere eranskinak Leioako udalari eta prozeduran alegazioak egin dituztenei jakinaraztea.

Primero.- Aprobar los proyectos constructivos de “Adecuación del Túnel de la Avanzada en la BI-637; Infraestructura y Superestructura”, con un Presupuesto Base Total de Licitación sin IVA, que asciende a la cantidad de CINCUENTA Y TRES MILLONES SETECIENTOS DIECISIETE MIL QUINIENTOS CUARENTA Y NUEVE EUROS CON CINCUENTA Y CUATRO CÉNTIMOS (53.717.549,54 €) y con IVA (21%) asciende a la cantidad de SESENTA Y CUATRO MILLONES NOVECIENTOS NOVENTA Y OCHO MIL DOSCIENTOS TREINTA Y CUATRO EUROS CON NOVENTA Y CINCO CÉNTIMOS (64.998.234,95 €), así como un plazo estimado de ejecución de CUARENTA Y UN MESES (41) para el proyecto de Infraestructuras y de TREINTA Y SEIS (36) meses para el proyecto de Superestructura, con fundamento en los proyectos y los informes para la aprobación remitidos constan en el expediente.

Segundo.- Comunicar el presente Acuerdo Foral a la Subdirección de Desarrollo de Infraestructuras, al Servicio de Explotación, al Servicio de Expropiaciones y Servicios afectados, así como al Servicio de Seguridad Vial, Mejora y Modernización, unidades administrativas de este Departamento Foral.

Tercero.- Notificar el presente Acuerdo Foral al Ayuntamiento de Leioa y a las personas que han efectuado alegaciones en el procedimiento.



Laugarrena.- Orain jakinarazten zaizun ebazpena behin betikoa da administrazio bidean eta horren aurka, errekurtsioa jarri ahal izango duzu zuzenean, Eukal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, BI (2) HILABETEKO epearen barruan, argitalpenaren edo jakinarazpenaren egunaren biharamunetik zenbatuta.

Cuarto.- La presente Resolución que es definitiva en vía administrativa podrá ser recurrida directamente, en el plazo de DOS (2) MESES, contados a partir del día siguiente al de su publicación o notificación, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri aurretik, aukerako berraztertzeke errekurtsioa ere jarri ahal izango duzu, ebazpena eman duen organoaren aurrean, HILABETEKO (1) epearen barruan, argitalpenaren edo jakinarazpenaren egunaren biharamunetik zenbatuta. Hala ere, egokitzat jotzen duzun beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahal izango duzu hala nahi baduzu.

Igualmente, se podrá interponer, con carácter potestativo y previo a la vía contencioso-administrativa, recurso de reposición ante el órgano que ha dictado la presente resolución en el plazo de UN (1) MES, contado a partir del día siguiente al de la notificación, sin perjuicio de que pueda ejercitar, en su caso, cualquier otro recurso que estime procedente.

Bosgarrena.- Sail honen bulego birtualean argitaratzea Erabaki hau, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriko “Plan eta proiektuei buruzko informazio publikoa” atalean kontsultatu ahal izango da.

Quinto.- Proceder a publicar en la oficina virtual de este Departamento el presente Acuerdo, que podrá consultarse en la sección de “Información pública de planes y proyectos” de la web de la Diputación Foral de Bizkaia.

Obren ataleko burua / Jefe de Sección de Obras. IVAN LÓPEZ ROPERO

Azpiegiturak Garatzeko Zuzendariordea / Subdirector de Desarrollo de Infraestructuras. JOSE MIGUEL DE LA FUENTE CASADO

O.E. /Nº Bº

Lurralde Garapenerako zuzendari nagusia / Director General de Desarrollo Territorial. GORKA ESTEBEZ MENDIZABAL

Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio. /De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.

Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatua / El Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. IMANOL PRADALES GIL